


KIMIKA FAKULTATEAREN 50. URTEURRENA

Martxoko Jardueren Laburpena



Komunikabideetan egindako agerraldiak

Hirutxulo astekarian Fakultatearen inguruko [erreportai berezia](#) argitaratu zen. Erreportaia, Fakultatearen 50 urteak errebasatu ziren, eta gerora begira Fakultatearen erronka berriak ere aipatu ziren. Kimika gure egunerokotasunean agerikoa dugula adierazteko, gaur egungo ongizatean Kimikak egindako ekarpenen inguruan hausnartu genuen ere.



Martxoaren 8aren inguruan

Martxoaren 7an, Fakultateko Berdintasunak Batzordeak eta [Jakiundek](#) antolatuta, Lourdes Basaberen hitzaldia izan genuen, "De la investigación a la innovación: Mi Viaje en la Microfluídica" izenburuarekin. Bertan bildu zirenak, Lourdesen ibilidea ezagutzeaz gain, bere ikerkuntzako arlo esanguratsuenak ikusteko aukera izan zuten. Ekitaldi borobila martxoaren 8a aldarrikatzeko.



Jakiunderekin batera ere, otsailan zehar izandako "24 emakume" erakusketaren bukaera izan genuen martxoaren lehenengo egunetan, martxoaren 8ko aldarrikapena osatuz.

Zientzia Zabalkuntza Jarduerak

12 Hilabete – 12 Gai

Hilero, Fakultatearen jarduerarekin lotutako dibulgazio-gai bat izango dugu Fakultatean. Martxoan *“Hori guztia elektroiekin?”* izan zen gaia. Ekimen honen baitan, hilero jarduera desberdinak burutu dira.

Hitzaldi Zikloa Donostia Kulturarekin: Hilabeteko gaiaren lotuta, udako hilabeteteetan ezik “50 Urte Kimika Zabaltzen” hitzaldi zikloa burutzen ari da. Donostia Kulturarekin batera antolatuta Ernest Lluch Kulturetxean. MFZko komunikazio arduradunak, Idoia Mugikak, aurkezten du zikloa. Testuinguru honetan kokatzen da martxoaren 11an Daniel Retak emandako hitzaldia: *“¿Todo eso con electrones?”*. Aurreko bi hitzaldietan baino jende gutxiago gerturatu arren, entzuleriarekin eztabaidarako aukera egon zen, eta arratsalde oparoa izan zela esan daiteke.



Zabalkuntza Bideoak: Aipatutako jardueretako bat Fakultatearen jarduerak sustatzeko zabalkuntza bideoak egitea da. UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko CIDIREko langileek egindako bideo hauek Fakultateko [Vimeoko kanal espezifikoa](#)n argitaratuko dira. Momentuz, arazo teknikoak direla eta, martxoko bideoa EHUTBn ikusgai dago [esteka honetan](#).

UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blogak: Beste jarduera bat UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blogetan artikulua argitaratzea da. Lanak Zientzia Kaiera euskarazko blogean eta gaztelaniazko Cuaderno de Cultura Científica blogean argitaratuko dira. Orain arte argitaratutako artikulua guztiak [esteka honetan](#) ikus daitezke. Cuaderno de Cultura Científica blogean argitaratutako martxoko artikulua [hemen](#) irakur daiteke, eta Zientzia Kaierakoa [hemen](#).

Irratsaioak: La Mecánica del Caracol bezalako irratsaioak izango dira Fakultateko jarduerak zabaltzeko beste kanal bat. Martxoko gaia mintzagai izan zen Eva Caballerorekin batera Radio Euskadin. Elkarrizketa horretan, Daniel Retak "50 Urte Kimika Zabaltzen" zikloko hitzaldiari buruz aritu zen. Elkarrizketa [hemen](#) entzun daiteke. Bestalde, orain arteko elkarrizketa guztiak [esteka honetan](#) bilduta daude.

Zabalkuntza – Orientazio Jarduerak


Ate Irekiak

Urtero bezala, batxilergoko bigarren mailako ikasleen bisita izan genuen "Ate Irekiak" jardunaldian. Aurten, kutsu berezi bat izan du bisitak 50. Urteurrena dela eta. Ikasle guztiek erakutsi zuten Kimikarekiko interesa, nork daki datorren urtean zenbat izango diren Kimika Gradua ikasten!



Bisita gidatuak

2025ko hilabete guztietan, udako hilabeteetan ezik, bisita gidatuak burutuko dira Fakultatean. Egutegi osoa beheko irudian ikusgai dago.



Martxoaren 26an Batxilergoko bi ikastetxeren bisita jaso genuen. Zumana BHItik 28 ikasle izan genituen eta Axular Ikastolatik 16. Behean azaldutako programa jarraitu zuten gurean.



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50 URTE
AÑOS

somos
KIMIKA
gara



#kiffadossio

Bisita Gidatuak 2025ko Martxoa

Kimika Fakultatearen
50. Urteurrena

Egutegia

Urte	Ordua	Ikasleak
urt	9:30	16
ots	9:30	28
mar	9:30	16
api	9:30	16
mai	9:30	16
eka	9:30	16
uzt	9:30	16
abu	9:30	16
ira	9:30	16
urr	9:30	16
aza	9:30	16
abe	9:30	16

PROGRAMA

9:30 Ongi etorria eta aurkezpena
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa


1. Taldea
9:50 Esperimentua Biologiako Laborategian
 DNAren erazketa
10:35 Ikerketa Laborategiaren bisita
 Material polimeriko jasagarriak
11:00 Azpiegitura Laborategiaren bisita
 Erresonantzia Magnetiko Nuklearra

2. Taldea
9:50 Esperimentua Geologia II Laborategian
 Su artifizialen koloreak
10:35 Ikerketa Laborategiaren bisita
 Erreologia eta 3D imprimaketa
11:00 Azpiegitura Laborategiaren bisita
 Magnetismo

3. Taldea
9:50 Esperimentua K. Ezorganikoaren Laborategian
 Metalen identifikazioa
10:35 Ikerketa Laborategiaren bisita
 Energia
11:00 Azpiegitura Laborategiaren bisita
 Mikroskopia

11:20 Agurra
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa





Bai patxadaz eta ordena onean joan ziren, eta eguna oso ongi baloratu zuten bisitariek zein bisitatuek

Euskal Herriko, Burgos eta Errioxako Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren Elkargo Ofizialak emandako hitzaldia




Pasa den martxoaren 6an, "[Euskal Herriko, Burgos eta Errioxako Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren Elkargo Ofiziala](#)"-ren hitzaldia izan zuten laugarren mailako ikasleek. Bertan, Elkargoaren aurkezpena izan zuten, eta ibilbide profesionalaren inguruko hainbat informazio jaso zuten. Bestek beste, behin Kimika Gradua bukatuta izan ditzazketen aukereta aritu ziren.



Ikerketa Jarduerak

GrAL Eguna

Martxoaren 19an Gradu Amaierako lanen Eguna ospatu zen. Urtero bezela, jardunaldia arrakastatsua izan zen eta interakzio asko egon zen hirugarren eta laugarren mailako ikasleen eta ikerketa talde desberdinetako ikertzaileen artean.



Kolaboratzaileak eta Patrozinatzaileak

Kolaboratzaileen eta babesleen zerrendak hazten jarraitzen du hilabetez hilabete. Eragile kopurua urte amaierara arte hazten jarraitzea espero dugu.

Instituzioak eta UPV/EHU

- Eusko Jaurlaritza. Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetza
- UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedra

Ikerketa eta Transferentzia Eragileak

- Ikerbasque: Basque Foundation for Science
- ADEGI. Gipuzkoako Enpresen Elkarte
- Donostia Sustapena
- EUSKAMPUS
- BIC Gipuzkoa
- Donostia International Physics Center
- Centro de Física de Materiales / Materialen Fisika Zentrua
- POLYMAT
- CIC BiomaGUNE
- CIC NanoGUNE
- IIS BioGipuzkoa
- CIDETEC
- Tecnalia

Enpresak

- OPPAC
- Oribay

- Burdinola
- Ikerlat
- Merck
- Scharlab
- Izasa

Kimikako eragileak

- Euskal Herriko, Burgos eta Errioxako Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren Elkargo Ofiziala
- Real Sociedad Española de Química
- Real Sociedad Española de Química. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Atala

Gizarte, Kultura eta Ezagutza Zabalkuntzaren inguruko eragileak

- Jakiunde
- Emakumeak Zientzian
- Donostia Kultura
- La Mecánica del Caracol (Radio Euskadi)
- AGIJUPENS Erretiratu eta pentsiodunen gizarte zentroen Gipuzkoako federazioa
- Bergarako Laboratorium Museoa
- Udako Euskal Unibertsitatea UEU Universidad Vasca de Verano
- Elhuyar Fundazioa

Bigarren Hezkuntzako eragileak

- Colegio SUMMA Aldapeta Ikastetxea
- CIFP Don Bosco LHII
- Tolosaldea LHII
- Ikastola Elkartea